

Euskaraz bizi nahi dugu?



ENEKO OROZ ORMAZABAL ETA
IRUÑE ASTITZ LARUNBE
SAREKO EDUKI SORTZAILEAK

Gure egunerokoa pantailek presentzia oso handia dute. Izan ere, zenbat aldiz begiraten diogu mugikorrari egunean zehar? Eta tablet, ordenagailu edota telebistari?

Zorionez, gero eta gehiago hitz egiten ari da pantailez. Pare bat asteko tartean, hiru aldiz irakurri dugu haien inguruko aipamenen bat prentsa idatzian. Horiek irakurtzean hainbat zalantza sortu zaizkigu: zertaz ari gara pantailetaz hitz egiten dugunean? Zer ikuspuntutatik hitz egiten da pantailen inguruan?

Azken aldian, tamalez, pantailetan euskara sustatzearen aldarrikapena *streaming* plataforma zein telebista formatuetara bideratuta dauden ikus-entzunezkoetara mugatu da. Izan ere, pantailen inguruan sare sozialetako edukiaz hitz egiten denean, gehienetan, kanpo mehatxu bezala ikusten da.

Sarea, eta bereziki, sare sozialak hizkuntza hegemonikoei (gaztelania, frantsesa edota ingelesa, adibidez) atea irekitzen dieten tresnak direla aipatu izan da, garai batean rockarekin gertatu zen bezala. Baina, gaur egun, rocka ez al da euskal musikaren parte? Zenbat pertsona gerturatu dira euskarara garai batean gure hizkuntzarentzako mehatxutzat hartu zen musika estilo horri esker?

Sarea gure egunerokoa presentzia

Gurea bezalako
hizkuntza komunitate
batean ezin dira
gutxietsi Sareak
hizkuntzaz gozatzeko
eta normalizaziorako
ematen dituen aukerak

handituz joan den heinean, euskara erdigunean duten proiektuak sortu dira. Bere garaian Hertzainak edo Zarama taldeek rockarekin egin zuten moduan, hainbat lagun pantailetan edukia euskaraz sortzen gabilta, atsegin ditugun ikus-entzunezkoak euskaratzen ari gara eta bideojokoen, rolaren, manga eta animaren, zinemaren zein *Kodi* bezalako tresnen zaleok elkarguneak sortu ditugu Sareak eskaintzen dituen aukerak baliatuta. Inork ezer esan gabe antolatu eta martxan jarri gara, bozgorailuetatik pantailak munduaren akabera direla esaten den bitartean.

Gero eta jende gehiago gara Interneten euskaratik eta euskaraz bizitzeko bi-

dea egiten gabiltzanak; Youtube, Twitch, Tik Tok eta Instagram bezalako sare sozialetan edukia sortuz edota puntako film, telesail zein bideojokoak euskaraz egon daitezen lan eginez, adibidez.

Hala ere, gaur egun, euskaldun gehienok sare sozialak, *streaming* plataformak edota bideojokoak erdaraz kontsumitzen ditugu eta bilaketak erdaraz egiten ditugu. Izan ere, askotan ez dakigu atsegin dugunaren inguruko edukia euskaraz dagoen, eta egotekotan non edo nola topa daitekeen.

Pantailei buruz eztabaidatzeak beharrezkoa izaten jarraitzen duen bezala, gurea bezalako hizkuntza komunitate batean ezin dira gutxietsi Sareak hizkuntzaz gozatzeko eta horren normalizaziorako ematen dituen aukerak.

Horregatik, oso garrantzitsua da euskara erdigunean duten proiektu eta edukiak bultzatzea: sare sozial ezberdinetako eduki sortzaileen lana ezagutzera emanez, gai espezifikoaren inguruko euskarazko komunitateak sustatuz, Zer Non Ikusi bezalako tresnak ezagutu eta zabalduz edota euskarara itzultzen, bikoizten edo azpitolatzen direnak kontsumituz, adibidez. Beraz, euskaraz bizi nahi dugun heinean, garrantzitsua izango da halako espazioak ezagutu eta kontuan hartzea. ●



EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa

EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!

www.aleka.eus

- . BASERRITARRAK SAREAN
- . AGROEKOLOGIA
- . BIOANIZTASUNA
- . BERTAKO EKOIZPENA